

Alain Iriart

Lapurdiko Hiriburu, 1959. *Hiriburu Maita* taldearen izenean auzapeza. ABko kidea. Hiriburu kantonamenduko (SIVOM) eta Bilta Garbi –herrien arteko– sindikatako presidentea. Orain sei urte, Herriko Etxearen ardura hartu zuenean, “abertzale batek Iparraldean kudeatu duen herririk handienaren auzapez gisa” elkarrizketatu genuen. Orduan, KPNG –kudeaketa, finantza, aholkularitza– enpresako lanak burutzen zituen eta gaur egun ere bai: “Lehengo enpresan segitzen dut, ez denbora osoz –ongi da ere ekonomia behatzea–, auzapez gisa bai, egunero ari naiz, igandea barne. Gaztea naiz oraino”.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz



«Herri elkargo guztiek errauste sistema baztertu dute»

Ipar Euskal Herriko herri hauteskundeak udaberrian burutuko dira. Hiriburu Maita taldearen agintaldia ia bururatua da. Alain Iriart auzapeza legealdia berritzeko prest azaldu zaigu. Mandatuari buruzko egitasmoen bilana edota balorazio orokorra eginez abiatu dugu solasaldia: “Gure asmo nagusietariko bat lantegiak eta merkataritza-guneak herri barnean atxikitzea zen, ez zitezen Baionara eramanak izan, konparazione. Horren karietara geure eremua erai-kiarazi dugu. Bestalde, zahar etxea (hogei enplegu), eskoletarako jantokia eta hogeitau haurrentzako haurtzaindegia (zazpi enplegu) sorraraziko ditugu, elebidunak denak. Halaber,

Serorategia –antzinako Herriko Etxea– erakusketa etxea bihurtu dugu” diosku baikor Iriart auzapezak.

Euskara sustatzea Hiriburu Maitaren egitasmo garrantzizkoa zen. Nola moldatu zarete arlo horretan?

Hasteko, herriko eta bideko seinaleak euskaraz ere ezarri genituen, baita udal gonbiteak euskaraz egin ere. Hainbat jende harritu zen hastapenean. Euskararen sustatzea ez da erraza hemen, baina gure xedeak burutu ditugu. Taldearen nahikaria zen, horretarako ere hautatuak baikin. Hizkuntz politika finkatzeko jendearen atxikimendua xerkatu dugu, herritarren aldeotasuna eta

oniritzia bildu. Jende gehiena urrundago euskal kulturatik, hauek asko kanpotik jin berria da, ez dute euskal errealitatea ezagutzen. Kantonamenduan ez zen ikastolarik ez haurtzaindegirik ere. Alabaina, gure mandatuan ikastola berria abiatu da. Haur eta Lehen mailak sortu dira, haurtzaindegia ere bai. Elebidun nahi genituenok gure nahiak argudiatu eta eztabaidatu ditugu. Ikastolaz gain bi eskola publiko dira hemen, bat elebiduna, ehuneko 60k euskaraz ikasten du.

Agintaldiaren hastapenean BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) distrituarekin harremana nola landu aztergai izan zenuten. Nola joan da atal hau?

ABKO KIDEA ETA HIRIBURUKO AUZAPEZA

“Gazteei herri kontseiluetan ideiak defendatzeko dei egiten diet”

Nola ikusten duzu abertzaleen lana herrietan?

Herrietako arazoak ezagutzen ditugu, baina ez aski. Ardurak eta beharrak zehazten segitu behar dugu. Abertzaleak jendearen atxikimendua biltzen ari gara, aitzina goaz baina emeki, ez ditugu eremu guztiak lantzen oraino. Adibidez, ABk ezin du lana hauteskundearen kanpainara mugatu soilik, herriko etxeetan zazpi urtez lan egin behar da. Herriko kontseiluetara hurbildu eta eguneroko arazoak gure gain hartu behar ditugu.

Zer iritzi duzu EH Bai koalizioaz?

Esperientzia ona da. Baina EH Bai osatzen duten alderdi guztiak ez dira Ipar Euskal Herriko errealitatean zentratzen, ez dute lehentasun hori bederen. Batasunak eta EAK Iparraldeko Hegoaldearen barnean ikusten dute. Bi aldeen arteko harremanak lantzea ondo da, baina benetako desafioa hemen da,

herri politikan. Beste aldeko problematika hona sobera ekartzen badugu, hemengo jendeekin harremana sendotzea zailagoa da. Oreka hori atzeman behar da, ados, baina ez dut atzeman denik uste.

Militante gazteek ulertzen al dute planteamendu hori?

Belaunaldi berriek politikaren arduetan aritzeko beldur gisako bat dute. Ni ez naiz instituzioetan egiten den guztiarekin ados, ideologia eta jarrera desberdineko pertsonak gaude politikan, eta mintzatu behar da. Gazteentzako zaila da, ulertzen dut. Gazteentzako aferak zuriak edo beltzak dira, nik ere horrela ikusten nuen duela 30 urte. Baina bizitza usu grisa da, tartean argia jiten da. Gazteei kontseiluetan ideiak defendatzeko dei egiten diet, konplexurik eta beldurrik gabe. Aurkariak ez dira beti akort, alta, solasaren bidez ontzen eta aitzinatzen dira arazoak.

Duela zazpi urte –SIVOM delakoaren bitartez– harremanak lantzen hasi ginen ondoko herriekin. Hautu bat egin behar genuen: edo BAMEkin harremana sakondu edo geure taldea sortu. 2004an gure elkargoa sortu genuen, eskuduntza berriak hartuz. Hala nola ekonomia gure gain hartzea. Xedea hamar-hogei urte barne elkargoa sendoa izatea da, BAMen ondoan esku-hutsik ez bizitzeko. BAMEko inguruko herriak txikiak gara, Baiona, Angelu eta Miarrizteren aldean gure beharrak eta ahalak tipiak dira: aurrekontu eta problematika ezberdinak ditugu. Beste kantonamenduetako herri elkargoekin ere –Hazparneko eta Bidaxuneko eskualdeko herriekin– ari gara harremanetan, problematika bertsuak ditugun eskualdeak gara.

LGV eta TGV (Abiadura Handiko Burdinbidea eta Trena) delakoaren egitasmoa nola bizi duzue Hiriburun. Victor Pachon eta Jean-René Etchegarayren ikuspuntu desberdinak bildu ditugu orriotan. Zuk nola ikusi duzu afera?

Arranguratu gara, bistan denez. Gaia gogoetatu dugu, eztabaidetan parte hartu dugu. Gure jarrera egungo trenbidea lantzearen eta hobetzearen aldekoa da. RFRren (Burdinbidearen Egituraketarako Bulegoa) nahikaria bide berria egitea da, guk berriz, dagoena lehenago ontsa aztertzea nahi dugu. Ikerketak ikusi ondoren, gure ustez, bide berriak kalte handiak eraginen ditu inguru honetan. Aldi berean, guk nahiago dugu merkatuzien garraioa trenbidetik pasaraztea

autobidetik baino, alta bada, autobidea zabaldu nahi dute eta lan horiek Hiriburu ukituko dute bete-betean. Hiriburuko pasaian tunel bat egitea eskatu dugu guk. Ez da gure arrangura soilik, Mugerre eta Urketa herriek ere arazo bertsuak dituzte.

Bil ta Garbi herri arteko sindikataren presidentea zara, zaborren tratamenduaz arduratzen den elkargoa. Nola daramazu kargua?

Ez dut kargua hartzearen dolurik. Abertzaleok dossier edo txosten hauen ardura hartu behar dugu. Gizartearentzako ona dena guretzat ere ona baita.

“Lantoki hauek prozedura hobetu dute urinak eta usainak desagerrarazteko.

Inertia bilakatutako hondakina sartzen da soilik lurpean”

Gai horretan biziki aitzinatu gara, duela hiru urte ez genuen egiturarik ez aitzina egiteko ahalik. Gure ideiak plazaratu ditugu, manifestazioak egin eta hitzarmen bidea landu.

Nola garatu duzue egitasmoa?

Ekimena CLIS deritzanaren bidez (Tokian tokiko komisioak) garatua da, ingurumenaren informaziorako eta zainketarako ekimena da. Administrazioak laguntzen du talde horien antolaketan. Bil ta Garbi, hondakinak

tratatzeko proiektua, ingurumenaz arduratzen diren taldeak eta administrazioaren arteko elkarlanaren ondorioz sortu zen. Bil ta Garbi Ipar Euskal Herri osoa –Donibane Lohizuneko kantonamendua salbu, Bizi Garbia sindikatua antolatua dute han, Txingudi eskualdea ere hartzen duena– eta Biarnoko Saliese, Navarrenkose eta Salbaterre herriak biltzen ditu.

Azaldu iezaguzu hondakinak tratatzeko Bil ta Garbi darabilen prozedura.

Lehen lana zura, beira, plastikoa, burdina edota gai organikoen bereizketa da. Gailu elektrikoen bereizketa egiten ere hasi gara. Hondakinen parte bat Senpereko bilgunera doa eta beste bat Bordelera, hondakinak lurperatzeko guneak dira. Senpereko Bizi Garbia guneaz gain Urruñan eta Hazparnen ere lurperatzeko tokiak daude. Alabaina, hondakinak gune horietara guztietara eraman aitzin –kostaldean soilik urtean 60.000 tona biltzen dira– Baionan muntatu berri den usina edo lantoki batera doa. Lantoki honetan, zura, beira, plastikoa, burdina eta gai organikoak are gehiago bereizten dira konpostajea egiteko. Lantoki horretatik ahalik eta gai gutxien ateratzen da lurperatzeko. Prozedura honen ondorioz hondakinak erretzeko zegoen erraustegia (Baionako Bacheforès auzoan) itxi zen. Zuberoako Sarrikotapean antzeko beste lantoki bat abian da, ez Baionakoa bezain handia, baina gauza bera egiteko.



"Sistema hau ondo aztertu beharko lukete Hegoaldean, teknika hauek menperatu daitezke, ari dira hobetzen. Hondakinen tratamendurako bitarteko egokiena da nire ustez".

Prozedura hau Frantzia nagusitzen joan da. Nolakoa da?

Aurretratatamendu mekano-biologikoa bezala ezagutua da. Hondakinak ez badira sakon tratatzen aitzinetik, jendeak beldur amini bat dio lurperatze prozedurari. Lantoki hauek prozedura hobetu dute urinak eta usainak desagerrarazteko. Inertia bilakatutako hondakina sartzen da soilik lurpean. Frantzia bide hau indartzen ari da. Egia da erraustegi asko ere berriak izan direla, handitu dituzte, baina ez dira berriak sortzen. Eragozpen eta sektore asko kontra dute.

Gipuzkoan prozedura ez da trenkatu oraindik. Segitzen duzu gaia?

Hegoaldean hartu duten bidea ez dut ontsa ezagutzen, ez dut ulertzen alabaina Hegoaldean gertatzen dena. Guk hautu bat egin dugu, ados gaude denok.

Herri elkargo guztiek errauste sistema baztertu dute. Bakar batzuk erretzearen alde ziren, gehiengoa ez. Sistema hau ondo aztertu beharko lukete Hegoaldean, teknika hauek menperatu daitezke, ari dira hobetzen. Hondakinen tratamendurako bitarteko egokiena da.

Herriarrian parte-hartzea funtsezkoa da zeregin honetan guztietan.

Bai. Arazoa handia da, baina jendea kontzientziatzen ari da. Ohiturak emeki-emeki ari dira aldatzen, jendeak gero eta birziklatze lan gehiago egiten du. Gaia sartu da eskoletan, haurrekin landu behar da gaia, hurrengo belaunaldiaren kontzientzia areagotuko da.

9.000 tona paper utzikina biltzen da Iparraldean urtero. Stop Pub kanpaina burutu zenuten urte hasieran. Nola joan zen?

Jende askok segitu zuen kanpaina. Paperaren zabalpena tipituz doa. Ez da aise, bistan da. Arazoak dira prentsarekin eta paperaren sektorearekin. Baina gure egitasmoa errespetatu dute, mintzatu gara eta ulertu dugu elkar. Kanpainak oihartzuna ukan du. Hori da abiapuntua: gaien ekoizpena apaltzea eta gutxiago kontsumitzea, gero prozeduran lurperatzeko gai gutxiago izateko. Jendea prest da, baina informazioa ondo eman behar da, eta horretarako nahikari politiko azkarra behar da. Guk politika hori landu dugu hiru urtez, baita manifestazioak egin ere. Interesa badago, jendea hunkitu dugu. Pentsa ezazu, herriarrek hobeto ezagutzen dute Bil ta Garbi sindikata kantonamenduetako herrien elkargoak baino. Gizartea akuilatzen segitu behar dugu egindako lana bertan behera gera ez dadin. ■



INGURU ABENTURA

- Abentura kirolak • Eskola kanpainak • Kanpamentuak • Ospakizunak
- Multiabentura • Prestakuntza ikastaroak • Bidaia aholatuak
- Bizikleta edo/eta mendi materialaren alokairua
- Neurria egindako aurrekontuak

Harremanetarako telefono zenbakiak: 635 740 947 / 635 740 948

Tel. eta Faxa: 945 200114 - San Juan kalea 18, 01200 Aiheniz - ARABA

www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

Guikuri Nekazal Etxea





Cultur, 1 Tella: 945 464084

01156 Muruz (Araba) 615 782323

guikuri@euskalnet.net - www.guikuri.com